



Maiatzean hasiko da Eskolarteko Txapelketa

Euskal herriko finala ekainaren 22an egingo da, Orion. Eskolarteko berri baterako hausnarketan ari gara, eta aurten aldaketa txiki batzuk izango dira. Diseinu berria 2014an jarriko dugu abian.

Udaberriarekin batera, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa iristen da urtero. Aurtengoan ere halaxe izango da. Maiatzean hasi eta ekainaren 22an Euskal Herriko finala jokatu arte, herrialdez herrialde ehunka haurrek izango dute bertso-eskolan ikasitakoa erakusteko aukera. Dena den, zenbait kezka sortu dira azken urteotan lehia ereduaren inguruan, eta datozen urteotarako hausnarketa prozesuan ari gara. Eskolarteko berriaren helburuetarantz zuzenduta, aldaketa txiki batzuk dakartza aurtengo edizioak: txikien mailan, taldeka hartuko dute parte herrialde guztietan, eta EH-ko finala ere taldeka izango da. Helduen mailan, saioaren barruan ez da galbaherik pasako, eta kartzelako lana ere kendu da.

Arantzazu Loidirekin formazio saioa egin dute bertso-eskoletako irakasleek Txapelketak datozenean edo jendaurreko beste edozein saio, bertso-eskoletako irakasleek egoera horien aurrean ikasleak nola bideratu, emozioak nola kudeatu ez dutela jakiten, hutsune horren berri azaldu da bertso-eskoletako irakasleekin egin diren gogoetatan, Eskolartekoa berritzearen harira. Bide horri hasiera emateko, Arantzazu Loidirekin formazio saioa egin zen martxoaren 16an, Bertsozale Elkartearen (Villabona). Bertso-eskoletako 20 irakasle elkartu ziren, eta nork bere bizipenetatik tiraka, eta

bertan elkartutako beste kide guztien esperientziak jasoaz, nork bere ondorioak eta irakaspenak ateratzeko bide eman zuen Arantzazu Loidik bideratutako dinamika goxo eta hurbilak.

Datorren urtean, Eskolartekoa txapelketa bat izatetik, ikasturte osoan zehar banatutako ekimenekin osatutako proiektua izatera pasatzea da aurkezten den proposamena. Ekimenak genero parekidetasuna sustatzea eta kontsumo arduratsua zein ingurumena zaintzea izango ditu zeharlerro. Eskolartekoaren diseinu berria egiteko lantalde ezberdinetatik jaso dira ekarpenak: talde zabalako gogoetak eta herrialdeka gaztetxoekin bilerak egin dira. Diseinua zehazteko lantalde eragile bat sortu da, eta talde zabalago batek bere ekarpenak egin ditu. Hemendik aurrera bertso-eskolei aurkeztu eta ekarpenak jasoko ditugu.



Eskolarteko Txapelketa.//XDZ



JULIO SOTO
2013-03-02, Atarrabia

Gaia: Zoriontsu sentitzen zara baina nahiago duzu ez hala agertu.

Doinua: Nire gorputza dardarka daukat

Hogeita bostak beteta dauzka goruntz dijoa pixkana ingeniari zuzen zuen orain filologo lana. Hamasei urte zituenean zorionak erasana bertso-eskolan Estitxurekin ze ilusio zeukana! Orain bi txapel dauzka buruan lortu ditu erdibana. Bere bertso, bere fama bide polita darama umiltasunak ordea geldi ta isiltzera narama... Batzutan pozik esango nuke: "ni naiz Julioren ama".

Gaur ere hor dago ta eskuakin tapatu du poltsikoa. Lehenengo gaian aipatu ditu karritua, potitua bigarren gaian gaur'e harroko: ze pertxa, ze fisikoa gero PPko burua eta diruz itxulapikoa ta orain kartzelan ere aipatu nau... Saio kategorikoa! Gure etxe arkaikoa trofeodun mosaikoa baina hobeto isilik segi hobe da alajainkoa! Berak badaki harro nagola eta horrekin nahikoa.

2013a: Zabaltzen jarraitzeko urtea

Martxoaren 9an egin genuen Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen Batzar Nagusia Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean. Iazko memoria eta balantzea eta aurtengo egitasmoa eta aurrekontua aho batez onartu ziren. Hauxe da, laburtuta, 2013rako onartutako egitasmoa.

Genero taldea:

Formazioa eta sentsibilizazioa indartzen

Urtez urte ibilbide sendoa osatzen ari da Bertsozale Elkarteko Genero Taldea. Bai Elkarte barruan eta baita bertsolaritza osotasunean hartuta ere, genero ikuskera eta parekidetasuna sustatzeko sortuzen, eta horretan jarraituko du aurtengo ere. Genero-egiturak gizon zein emakumeei eragiten digunez, formazioa eta ezagutza eskaintzen jarraituko du nor bere alorrean aldaketak ekar ditzan. Hala, bertsolaritzan alor ezberdinetatik eragiteko bost ekimen izango ditu ardatz aurtengo. Alde batetik, otsailean arrakasta handiz egindako Umorez jardunaldiak. Bestetik, sortzaileei oholta gainerako formazioa eskainiko die Virginia Imazek. Bertso-udalekuean ere eragingo du Genero taldeak, 15 eta 18 urte bitarteko txandan kontzientziario tailerra eta kantu sorkuntza eskainiko baitira. Orain dela zenbait urte ondorio asko ekarri zituzten Askizun bertsolaritzari lotutako emakumeek egindako topaketak. Aurtengo bigarren edizioa egingo da. Eta, azkenik, diseinatzen ari garen Eskolarteko Bertsolari Txapelketa berriaren zehar-lerro izango da parekidetasuna.



Aritz Zerain koordinatzailea eta Xabier Gaztelumendi, Iñaki Murua eta Arrate Illaro kargudunak. //XDZ

Transmisioa:

herri ikuspegia landu nahian

Transmisioa hiruki bidez marrazten badugu ere (hezkuntza arautua, bertso-eskolak eta aisialdia) askoz ere zabalagoa da eta eragile gehiago hartzen ditu bere baitan: etxea, herri eragileak, euskaltegiak, udalak, hedabideak, plaza... Ikuspegi anitz hori

landu nahi dugu 2013an. Horren erakusgarri dira aurtengo AEKrekin antolatutako bi ekimenak: Bertso-Korrika eta Bertsolari Txapelketa Nagusiari lotutako saio didaktizatuak.

Transmisio proiektuaren hirukian erpinez erpin joanez gero, kopurutan hezkuntza arautukoak nabarmentzen dira. Gaur egun 20.352 ikasle ari dira bertsolaritza lantzen Euskal Herri osoko 382 ikastetxetan, 35 irakaslerekin. Aurrera begira ikastetxeetako proiektuari eustea izango da erronka. Ikastolen Elkartearekin egindako hitzarmenarekin segi nahiko genuke gainera.

Hezkuntza arautuko lanak bertso-eskoletakoa elikatzen du. Gaur egun 95 herritan daude bertso-eskolak, eta 1.429 ikasle ari dira bertan bertsolaritza lantzen. Aurtengo helduen bertso-eskolentzat ikastaroak antolatu ditugu.

Aisialdia da transmisioaren hirugarren erpina. Aurtengo Markinan ospatuko ditugu Euskal Herriko bertso-eskolen topaketak, eta, urtero bezala, bertso-udalekuak ere antolatuko ditugu. Bertso-eskolen presentzia eta herrialdeen parte-hartze parekatua bultzatu nahiko genituzke. Eta udalekuen izaeraren transmisioa egiteko begiraleen txanda ere antolatuko dugu.

Sustapena:

Txapelketa Nagusia eta Hedapen Sarea ardatz

Sustapenean Txapelketa Nagusia eta bertsolaritzaren hedapen sarea egoki antolatzea bideratuko ditugu indarrak. Txapelketa Nagusiari begira nolako txapelketa egin hausnartu dugu 2012an. Bertsoegintzari dagokionez, txapelketari dagokion jantzia bertso jardueraren neurrikoa izango da, eta bertsolari, epaile eta gaitzartzaileen arteko kohesioa bilatuko dugu. Bertsolaritzari begira, txapelketa mugimenduaren beharren arabera erabiliko dugu, bertsolaritzaren berezko mapari egokituta. Eta inguruari begira, euskal kulturaren eredu positiboa eskaini nahiko genuke, gizartearen egungo errealitatean ondo kokatuta.

Bertsolaritzaren hedapenari begira, sarean dauzkagun tresnak sendotu nahiko genituzke. Hala, Txapelketa urtea Bertsoa.com-en erreferentzialtasuna indartzeko erabiliko dugu. Txapelketaren inguruan sortutako irratiko hitzarmenak ere egonkortzea da helburua. Horrez gain, urteroko ekimenak ere izango ditugu esku artean: Bertso Eguna, Bertsoaroa...

Lanku:

Sendotze bidean

Aurreko urteetan izandako zailtasunen ondoren, positiboan itxi genuen 2012a eta gastu eta margenen kontrol zorrotza egingo dugu 2013an ere. Emanaldi kopurua igo egin da krisia nabaritu

Bazkidetza kuota, maiatzean

Bertsozale Elkarteko bazkide guztiei jakinarazi nahi dizuegu maiatzaren hasieran kobratuko dugula urteko bazkidetza kuota. Bazkidetza kuotak ez du igoserarik izango, iazko kopuru berekoa izango da: bazkidetza arrunta 45 euro eta elkarte laguntzaileena 85 euro. Gai honen inguruan zalantzarik baduzue, jar zaitezte gurekin harremanetan: 943694129 / administrazioa@bertsozale.com

arren. Egoeraren aurrean denda digitala eta web orrialdea sendotuko ditugu, eta almagazetan dauzkagun izakinei irtenbidea eman nahian jarraituko dugu. Txapelketa Nagusiaren inguruan ere lanean ariko gara, eta Hitzetik Hortzeraren jarraipena egingo dugu aurten ere.

Ikerkuntza:

Iker plana bertsolaritzaren ikergunearen ardatz

Urte berezia izango da 2013a Ikerkuntza Sailarentzat. Alde batetik, iaz 100 eragile baino gehiagorekin osatutako Iker Plana martxan jarriko dugu aurten. Horrek taldea berrantolatzea eskatuko du. Bestetik, Mintzola proiektua Ahozko Kultur Sorkuntzan zentratu dugu. Bi adar izango ditu Mintzolak: bertsolaritzaren ikertegia eta hortik elikatuko dugun Ahozko Genero Bizien Elkargunea. Bertsolaritzaren ikertegiak Iker Plana izango du ardatz eta lau ataletan bereiziko da: bertsolaritzaren ikerlariei eskainitako formazioa, ikerketa, ikerketen hedapen edo gizarteratzea eta komunikazioa. Gainera, Mintzola bidez

Kulturarteko Sarea indartu nahiko genuke aurten, etorkizunean berriz ere Nazioarteko Inprobisazio Kantatuari lotutako topaketak antolatzeke. Elkargunea, berriz, ahozko genero biziek elkar aberastuko duten laborategi bat izango da.

Horrez gain, ohiko ekimenak ere izango ditugu esku artean: doinutegia, Haitzondo, grabazio sarea eta "Bapatean 2012" tartean.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa:

Digitalizazioan eta grabazio sarean sakontzera

Mintzola egitasmoak hartutako norabidean oinarri-oinarrizkoa izango da Xenpelar Dokumentazio Zentroa, berak landuko baitu dokumentazio alorra. Horrez gain, funtzionamendu digitala indartu nahiko genuke aurten, grabazioen digitalizazioa bultzatuz eta Bertsolaritzaren Datu Basea hobetuz. Horrez gain, grabazio sarean sendotuko dugu herrialdez herrialde.





Puntua jarrita

PATXI ETXEBERRIA

Zenbaterainoko lotura dute edo izan bearko lukete bertsoak eta leiak. Nire ustetan biak ere bat bestearekin lotuta daude.

Bertso saio bat asten da eta aldi berean ortxen asten da leia. Bertsolari batek ziria eta besteak aundiagoa baina beti norberak kantatu nai du bertsozari onena. Bi bertsolari alkarrekin oso lagunak izango dira baina bertsoan asten diran momentuan ortxe asten da eztabaida. Bat asten da eta orduan bestea entzuten dago eta leenak utzi duen ari puntari tiraka asten da eta al badu leenak baino bertso ohea bota. Nire ustetan or daude bertsoa eta leia.

Au ez da oraingoa, oso zarra baizik. Erri batean bi basarritar, biak auzoak ziran eta biak bertsolariak. Bat sona aundikoa zan eta bestea bajuxeagoa. Biak soro batetik bestera eraso zieten bertsoan baina ona beti ona. Larri xamar artzen zuen onek bestea. Bat alabarekin eta bestea semearekin ziran, eta semearekin zana estu eta semea konturatu egin zan. Onek aitari esan zion: "utzi neri, aita". Asi zan au eta zapaldu egin zuen onek bertsolari on ura. Eta aitak orduan onela esan zion: "bejondeikela, ausi diagu, nagusi gaituk. Askatu katea eta goazen etxera; jai egin bear diagu, au ospatu bearra zegok". Beste anekdota bat au neri gertatua: egun batean bi bertsolari erri batera joan ginan. Eguna bete genduan altzan ondoena bakoitzak eta abiatu ginan etxera eguneko azterketa eginez eta besteak esaten dit: "i, Patxi, gauza bat esan bear diat. Begira, gaur egun Euskal Erriko bertsolariarik onenen parekoa juzgatzen aut nik i baina gaur nire azpian ibili aiz".

Baina neri elkarrizketa eder bateko bertso saioa asko gustatzen zait. Neretzako ez dago bertso-saio oberik:

Ane puntua neri zuk jarri zidazun eta orain baditut zenbait eginkizun borondate onenez erantzun nai nizun opa dizut zuk neri ainbeste maitasun eta ia bertso au gustatzen zaizun.

Eta orain nik puntua jarri nai diot nire lagun mina dudan Txomin Garmendiari: Ire erantzun on bat nai nitek Txomin aspaldiko partez

Koplak

Bertsozale.com atari berritua martxan

Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzari esker CodeSyntax enpresarekin batera garatu dugu Bertsozale.com berritua. Elkarlanean ari garen sei elkarteren atari korporatiboa izango da, eta martxan dauzkagun proiektuen inguruko gertu-gertuko informazioa eskuragarri duzue bertan.

Poto-Finixa



"Bat-batean" emanaldia aurkeztu du Lankuk

Oskar Estangak gitarraren eta beste bertsolari baten laguntzaz munduko musikak bertsoarako erabiliko ditu ikuskizun honetan. Taberna, elkarte, herri bazkari edo afari eta kultur etxeetara egokitutako emanaldia da. Era guztietako doinuak erabiliko dituzte saioan: samba, sona, tangoa... Orain arteko saioetan bertsolari ezberdinekin aritu da Estanga: Migel Mari Elozegi "Luze", Aimar Karrika eta Jon Martinekin besteak beste.



JASOTA BEZALA Bertso antologiakoen bilduma



ESKURATZEKO: www.lanku.com (etxean jasoko duzu)